



Jasangarritasun Arriskuak Integratzeko Politika

Kutxabank Pensiones

5.0 bertsioa – 2023/07/11

Aldaketen Kontrola

Bertsioen zerrenda		
Bertsioa	Data	Egindako aldaketen laburpena
1.0	2021/03/09	Lehenengo bertsioa
2.0	2021/07/13	Urteko berrikuspena, 2021. urteari dagokiona
3.0	2022/07/12	Jasangarritasun arriskuak " Bestelako Pentsio Funtsetan " integratzea. Urteko berrikuspena, 2022. urteari dagokiona
4.0	2022/12/13	Bazterketa irizpideen eguneraketa, inbertsioen gaiak, banakako sistemako planak barnean dituzten pentsio funtsen ikuspuntutik kaltegarriak diren intzidentzien kudeaketa .
5.0	2023/07/11	Urteko berrikuspena, 2023. urteari dagokiona

Erantzukizuna	
Izena	Finantza Arloa

Loturiko dokumentazioa

Dokumentazioa	
IZ	Izena
-	
-	

Aurkibidea

1.	Introducción	4
2.	Ámbito de aplicación.....	4
3.	Fondos de Pensiones Individuales	4
3.1	Gestión de los riesgos de sostenibilidad y procesos de decisión	4
3.1.1	Criterios de exclusión	5
3.1.2	Criterios valorativos.....	5
3.1.3	Temáticas	7
3.1.4	Incidencias adversas.....	7
3.2	Aplicación de la Gestión de los riesgos de sostenibilidad en los Fondos de Pensiones Individuales	8
4.	Otros Fondos de Pensiones	8
5.	Aprobación, revisión y actualización	9
6.	Anexo I: Marco regulatorio	10

1. Aurkezpena

Dokumentu honek Pentsio Funtzen Erakunde Kudeatzailea den Kutxabank Pensiones SAUren (aurrerantzean, "**Kutxabank Pensiones**" edo "**Erakundea**") jasagarritasun arriskuak integratzeko politika (aurrerantzean, "**Politika**") definitzen du.

Erakundearen administrazio kontseiluak onartu du Politika, non jaso baitira jasagarritasun arriskuak integratzean aplikatu behar diren gobernu printzipioak eta filosofia.

2. Aplikazio eremua

Politikaren aplikazio eremuak barnean hartzen ditu Erakundeak kudeatzen dituen Pentsio Funtz hauek:

- Banakako sistemako Planak integratzen dituzten Pentsio Funtzak (aurrerantzean, Banakako Pentsio Funtzak).
- "Empleados de Cajasur" Pentsio Funtza.
- "Kutxa Fondo de Pensiones Asociado".

Jasagarritasun arriskuak integratzeko orduan pentsio funts guztiak berdin tratatzen ez direnez eta, gainera, integrazio ikuspegi desberdinak aurreikusten direnez, Politikaren hurrengo puntuak desberdinak dira, batetik, "Banakako Pentsio Funtzen" kasuan eta, bestetik, "bestelako pentsio funtsen" kasuan ("Empleados de Cajasur" Pentsio Funtza eta "Kutxa Fondo de Pensiones Asociado").

3. Banakako Pentsio Funtzak

Ondoko apartatuak jasagarritasun arriskuen integrazioa sustatzen duten Banakako Pentsio Funtsei aplikatzen zaizkie.

3.1 Jasagarritasun arriskuen eta erabakitze prozesuen kudeaketa

"Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/2088 (EB) Erregelamendua, 2019ko azaroaren 27koa, finantza zerbitzuen sektorean jasagarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa" aplikaturik, gardentasuna hobetzeko eta azken inbertitzaileak jakinaren gainean jartzeko, Erakundeak, bere webgunean, dagozkion jasagarritasun arriskuak (sortutakoak edo sor daitezkeenak) inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan integratzeko moduari buruzko informazioa jarri behar du, antolamenduarekin, arriskuen kudeaketarekin eta prozesu horien gobernuarekin zerikusia duten gaiak barne.

Enpresen funtzionamenduaren eta negozio ereduaren ezaugarri batzuek ustekabeko galerak, gastuak, eraginkortasunik ezak, liskarrak, presio arautzailea eta erreputazio inpaktuak eragin ditzakete. Horren adibide dira klima aldaketari loturiko aktiboak, lan harremanen arloko erronkak edo gardentasunik eza kontabilitate praktiken inguruan, besteak beste.

Maila independentean eta, oro har, administrazio publikoaren beste arlo batzuetara (tokian tokiko administrazioa eta abar) eramateko moduan, besteak beste, baliabide naturalen kudeaketarekin, osasun

publikoaren arauekin eta ustelkeriarekin, eta, oro har, gizarte garapenaren indizearekin zerikusia duten arriskuek eragina izan dezakete sarrera fiskaletan, balantza komertzialean eta atzerriko inbertsioan.

Ondorio horiek jaitziera eragin dezakete igorpenen (bonuen, akzioen eta abarren) prezioan, prezio horren aldakortasuna eta ez ordaintzeko arriskua areagotzeaz gain.

Kutxabank Pensionesek, Banakako Pentsio Funtsetarako, jasangarritasun arriskuak (ingurumen, gizarte eta gobernu korporatiboaren mailakoak) hainbat jardun ildo osagarriren bidez integratzen ditu inbertsio erabakietan, hala nola:

1. Bazterketa irizpideak (ESG jarduera okerra duten eta sektore eztabaidagarrietan diharduten enpresak, zerga arloko kontuak).
2. **Balorazio irizpideak** (jaulkitzaileen ESG arloko ebaluazioa, bat etortzea Pariseko akordioko helburuekin, klima aldaketari eta ESG arloko eztabaiden kudeaketari dagokienez).
3. Inbertsio tematikoak (bonu berdeak, gizarte bonuak, garapen jasangarriko helburuetan egiten diren inpaktu handiko inbertsioak eta abar).
4. Intzidentzia kaltegarri nagusiak gehitzea.
5. Inplikazio politika bat gauzatzea (botoaren eta elkarrizketaren bidezko politika edo *engagement* delakoa).

3.1.1 Bazterketa irizpideak

Inbertsio erabakiak hartzeko eta zorroa eratzeko prozesuan, hainbat bazterketa kasu ezarri dira, ingurumen, gizarte edo gobernantzari lotutako faktore hauek oinarri hartuta:

- a) Jaulkitzaile pribatuak.
 - a. Ingurumena oinarri hartuta: ingurumen kalte larria eragiten duten edota GHG emisioetan eta klima aldaketan eragin handia duten jarduerak.
 - b. Gizartea oinarri hartuta: pertsonen osasunerako kaltegarriak diren ohiko kontsumo produktuak eta arma eztabaidagarriak.
 - c. Gobernantza oinarri hartuta: gobernantza estandar globalak ez betetzea.

- b) Jaulkitzaile publikoak:

Baztertu egiten dira ingurumen eta gizarte mailan jarduera txarrena duten herrialdeak, baita gobernatzeko eta aberastasuna kudeatzeko eredu kaskarra dutenak ere.

3.1.2 Balorazio irizpideak

Jaulkitzaileak ESG ezaugarri materialak zehazteko egindako neurketen bidez ebaluatzen dira, eta ebaluazioa inbertsio erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzen da. Balorazio irizpide horien guztien bidez jaulkitzaile bakoitzaren azterketa osoa egin nahi da, ingurumen eta gizarte arloko jardueraren eta erakunde bakoitzari dagokion gobernu korporatiboaren ikuspegi orokorra eta osoa lortzeko.

- a) Ildo horretan, jaulkitzaileen ESG kalifikazioa egiteko prozesua garatu da. Sektoreen arabera sailkatuta dauden kalifikazioak ESG aldagai batzuk txertatuz lortzen dira.

ESG kalifikazio hori erabakiak hartzeko prozesuetan (“*best in class*” ikuspegia duten horietan) integratzen da, hau da, inbertsio handiagoa bultzatzen da ESG jarduera hobea duten jaulkitzaileen kasuan, jarduera ez hain ona duten jaulkitzaileen kasuan, aldiz, arriskua murriztuz.

- Errenta aldagarrian egiten diren inbertsioetan, bazterketa iragazkiak aplikatu ondoren, ESG emaitzak finantza aldagaiekin batera integratzen dira, epe luzera aukera hobek eskaintzen dituzten balioak identifikatzeko.
- Errenta finkoaren kasuan, bazterketa iragazkiak aplikatu ondoren, ESG emaitzak inbertsio prozesuan integratzen dira –barne mugetan txertatuz–, ESG kalifikazio hobea duten inbertsioak sustatzeko.
- Inbertsio funtsen bidezko inbertsio ez-zuzenean honako hauekin konbinatzen dira:
 - ✓ Erakunde kudeatzaileen mailan zentratuenak diren alderdi kualitatiboak (*due diligence*),
 - ✓ Funtsen mailako alderdi kuantitatiboak: Morningstarren jasangarritasun *ratingen* bidez ebaluatzen dira. *Rating* horrek honako hau neurtzen du: funts baten zorroan dauden enpresek zein ondo kudeatzen dituzten beren arriskuak eta ESG aukerak, antzeko funtsekin konparatuta.

b) Argi dago klima aldaketak hainbat arrisku ekarriko dituela, aktibo mota desberdinen arabera. Adibidez, karbono asko erabiltzen duten eta egokitzeko estrategiarik ez duten konpainiak arriskuan egongo dira karbono gutxiko ekonomia batera aldatzeko prozesuan. Testuinguru horretan, akziodunek (hartzekodunen eta konpainiaren kapital egituran bonuak dituztenen menpe daudenean) inpaktu handiagoa nabarituko dute. Hori dela eta, *asset allocation* estrategiek aktibo mota bakoitzaren sentsibilitatea aintzat hartu behar dute, konpainia bakoitzak dituen beste arrisku sistemiko eta espezifiko batzuekin batera.

Horregatik, klima egoeraren azterketa oso garrantzitsua da inbertsio prozesuan, zorro bakoitzaren mikro-, makro- eta ESG sentsibilitateen azterketa gisa ulertzen bada.

Jaulkitzaile bakoitzak ingurumen arloan izan dezakeen bilakaera ezagutzeko eta zorroa klima aldaketari buruzko Pariseko Akordioaren helburuekin zenbateraino bat datorren neurtzeko, jaulkitzaile bakoitzaren kasuan aldagai garrantzitsu desberdinen aurreikuspena bere plan estrategikoen arabera aztertzen da.

Gaur egun, jaulkitzaile desberdinetan egiten diren inbertsioak eta inbertsio horiek ingurumenean duten inpaktua PACTA (Paris Alignment Capital Transition Assessment) metodologiaren bidez aztertuz egin daiteke.

Test horiek eginez gero, sor daitezkeen arriskuak uler daitezke, hala nola:

- Arrisku fisikoak. Klima aldaketak agerian utziko lituzkeen arriskuak dira, negozio jardueretan, estrategian, azpiegituran, enpleguan edota merkatuetan inpaktua izan dezaketenak; horrek are ondorio gehiago ekarriko luke inbertsioaren balio katean eta finantza sisteman.
- Trantsizio arriskuak. Lege, araudi, politika eta teknologia arloekin eta merkatuen aldaketarekin zerikusia duten arriskuak dira, karbono gutxiko ekonomia batera aldatzeko prozesuan. Aktibo ibilgetuen eta zaharkituen arriskua, adibidez, zorro batean trantsizio arrisku gisa ager daiteke.

c) Jaulkitzaile jakin bate kasuan ESG arloko gertaera esanguratsu berriak identifikatzeko, eztabaidak kudeatzeko sistema dago.

Hain zuzen ere, eztabaidak monitorizatzen dira, identifikatzen dira eta hautatzen dira, daukaten garrantziaren arabera. Hartu beharreko neurriak aztertu eta erabakitzen dira; neurri horiek arriskuaren ebaluazioaren arabera gauza daitezke, besteak beste, eztabaidaren jarraipenean, politika aktiboko neurrietan, jaulkitzailea mugatzean edo baztertzean.

3.1.3 Tematikoak

Kudeatutako pentsio funtsen inbertsio unibertsoan, badira zenbait aktibo –beren ezaugarriak direla eta– ingurumen- eta/edo gizarte-helburu baterako ekarpena barnean hartzen dutenak; adibidez, bonu jasagarriak, bonu berdeak edo gizarte bonuak izan daitezke.

Bonu Jasagarrien kasuan, funtsak Proiektu Berdeen eta Gizarte Proiektuen konbinazio bat finantzatzera edo birfinantzatzera bideratzen dira bakarrik.

“Bonu berdea” deitzen zaie zor tresna mota guztiei, non lortutako funtsak soilik proiektu berdeak, berriak edo abian daudenak –partzialki edo osorik– finantzatzera (edo birfinantzatzera) bideratzen diren, ingurumenari onura argia ekartzeko, Green Bond Principles (GBP) printzipioen oinarritzko lau osagaiekin bat etorrira.

Azkenik, “gizarte bonuak” gizarte arazo jakin bat konpontzea, arintzea edo biztanle talde zehatz batzuei ondorio positiboak ekartzea zuzeneko helburu duten proiektu berriak edo abian daudenak finantzatzeko edo birfinantzatzeko bonuak dira.

Kutxabank Pensionesek horrelako aktiboetan inbertitzea sustatzen du, barne mugapenen bidez. Bonu jasagarriek, bonu berdeek eta gizarte bonuek inbertsio muga zabalak dituzte, aktibo mota horietan inbertsio handiagoak egitea bultzatzeko.

3.1.4 Intzidentzia kaltegarriak

Erabakiak hartzeko prozesuetan jasagarritasun arriskuak integratzeko prozesutik datorren bigarren kontua topatzen ditugun intzidentzia kaltegarriak dira, hau da, jasagarritasun faktoreen gainean eragin negatiboa izan ditzaketen inpaktuak, inbertsio erabakiek eragindakoa.

Kutxabank Pensionesek kudeatzen dituen Banakako Pentsio Funtsei loturiko inbertsioari buruzko erabakiek zorroaren ingurumen eta gizarte izaerarekin zerikusia duten jasagarritasun faktoreen gainean izan ditzaketen ondorio okerrak saihestea du helburu. Horretarako, zorro bakoitzeko egindako inbertsioen jasagarritasun-inpaktu kaltegarriak aztertzen dira, intzidentzia kaltegarrien adierazleen bilakaera aplikatuz, eta dagokion jarraipena egiten da. Ingurumen- edo gizarte-inpaktuak handitzeagatik edo konpromisoak edo politikak ez betetzeagatik intzidentzia kaltegarri bat detektatzen bada, besteak beste, horren arrazoiak ebaluatzen dira eta, behar izanez gero, inpaktua arintzeko neurri egokiak hartzen dira. Neurri horiek inbertsio gehigarriak ez egitea, esposizioa murriztea edo behaketan jartzea izan daitezke. Neurriak osatzeko, hala badagokio, jabetza aktiboa gauza daiteke, parte hartzeko ekintzen bidez, hala nola elkarriketaren bidez eta/edo inbertsioaren jomuga den konpainiako partaidetzaren arabera dagokion boto eskubidea erabiliz.

Aurrekoari jarraikiz, eta erreferentziazko araudia betez, Kutxabank Pensionesek Kutxabank Taldearen webgunean argitaratu du aurrezpen sistematikoko banakako planei lotutako prestasun politiken gaineko adierazpena, horiek identifikatzeko, kudeatzeko eta neurtzeko irizpideak jasotzen dituen.

3.1.5 Implikazio politika aplikatzea

Kutxabank Pensiones elkarrizketa aktiboko (*engagement*) politiken bidez eta boto politiken bidez inplikatzen da. ESG arriskuak modu aktiboan kudeatzea eta horien iturrian bertan eragitea da helburua.

3.2 Jasangarritasun arriskuen kudeaketa Banakako Pentsio Funtsetan aplikatzea

Erakundeak Kutxabank Gestión, S.G.I.I.C., S.A.U. (aurrerantzean, Kutxabank Gestión) entitatearen esku utzi du Banakako Pentsio Funtsei loturiko inbertsioen kudeaketa. Horretarako, erakunde biek inbertsioak kudeatzeko kontratua sinatu dute. Kontratu horren bidez, jasangarritasun arriskuak inbertsio erabakiak hartzeko prozesuan integratzeko Politika honetan jasotako irizpide orokorrak aplikatzen direla gainbegiratzen eta kontrolatzen da, besteak beste.

4. Bestelako Pentsio Funtsak

Erakundeak enpleguko pentsio funts bat kudeatzen du ("Empleados de Cajasur" Pentsio Funtsa) eta loturiko pentsio funts bat ("Kutxa Fondo de Pensiones Asociado"); funts horien kasuan, kontuan hartuko ditu jasangarritasun arriskuak.

Horretarako, Erakundeak funts bien inbertsio zorroaren jasangarritasun arriskuekiko esposizioa neurtuko du aldian behin. Azterketa bera egingo da inbertsio berriei buruzko erabakiak hartzerakoan, inbertsioaren xede diren finantza aktiboei lotutako jasangarritasun arrisku horiek kontuan hartzeko.

Helburu hori kontuan hartuta, datozen ekitaldietan jasangarritasun arriskuek inbertsioen zorroan izan ditzaketen inpaktuen jarraipena egiteko, honako metodologia hau ezarri da:

- Zorroaren eta inbertsio berrien jasangarritasun arriskuak neurtzeko, ESG *rating*aren adierazleak bildu eta hautatuko dira, honako iturri hauek erabiliz:
 - ✓ Bonu korporatiboak eta errenta aldarra: jasangarritasun arriskua kalifikatzeko aukeratutako agentzietara joko da.
 - ✓ Inbertsio funtsen bidezko zeharkako inbertsioak: alderdi kualitatiboak (kudeatzaile mailan) eta alderdi kuantitatiboak (inbertsio funtsaren mailan) konbinatuko dira, horretarako kontratatutako ESG datuen hornitzaileek emandako jasangarritasun *rating*aren bidez.
 - ✓ Jaulkipen publikoak (zor subiranoa eta autonomia erkidegoak): ESG alderdiei lotutako erreferentzia indizeak erabiliko dira.
- Jasangarritasunari buruzko datu eta adierazle horiek lortuta, zenbait atalase ezarri dira, batetik, aktibo jakin batean inbertitzea baimenduta dagoen ala ez jakiteko, kontuan hartuta jasangarritasun arriskuarekiko ebaluazioa, eta, bestetik, arrisku hori onargarritzat jotzen den ala ez jakiteko. Atalase horiek indarrean dagoen zorroari eta egiten diren inbertsio berriei aplikatuko zaizkie.
- Horrez gain, honako bazterketa estrategia hauek aplikatu beharko dira:

- ✓ Paradisu fiskaletan kokatutako jaulkitzaileak edo jaulkipenak baztertea.
 - ✓ ESG arloko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten jarduerak egiten dituzten konpainietako esposizioen bazterketa zerrenda, NACEn baztertutako sektoreen arabera.
- Aktibo jakin batean inbertitzea erabakita eta aktibo hori zorroan sartuta, aldizkako jarraipena eta kontrola egingo da, lehen deskribatutako ESG integrazio irizpideekiko izan daitezkeen desbiderapenak identifikatzeko eta, hala badagokio, arduradunei jakinarazteko, azken horiek erabaki egokiak har ditzaten eta, hala badagokio, desbiderapen horiek konpon ditzaten.

Gogoratu beharra dago inbertsio estrategia Pentsio Funts bakoitzaren Kontrol Batzordeak definitzen eta onartzen duela. Aurrekoa gorabehera, Erakundeak aintzat hartuko ditu jasangarritasun arriskuak. Proporzionaltasun printzipioa aplikatuz, Kutxabank Pensionesek ez ditu aintzat hartzen bi pensio funts horien kudeaketako jasangarritasun faktoreei eragin diezaieketen intzidentzia kaltegarriak, honako arrazoi hauek direla medio:

- Jende guztiei eskaintzen ez zaizkien Pentsio Funtsak dira, hau da, kolektibo itxiak dira. "Empleados de Cajasur" Pentsio Funtsa Cajasur, S.A.U.-ko langileentzat da, eta "Kutxa Fondo de Pensiones Asociado" Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako Ingeniari Elkargoko kideentzat.
- Kolektiboaren ezaugarriak direla eta, Kutxa Fondo de Pensiones Asociado-ra egiten diren ekarpenak bigarren mailakoak dira. Funtsaren ondarea oso txikia da eta gainbehera doa.

5. Onarpena, berrikuspena eta eguneratzea

Kutxabank Pensionesen administrazio kontseilua Politika onartzeaz, berrikusteaz eta betetzen dela zaintzeaz arduratzen den organoa da, eta kontseilua bera da politika honen azken arduraduna.

Politika gutxienez hiru urtean behin berrikusiko da, eta dagokion sistema edo esparruan egiten den aldaketa garrantzitsu guztien arabera egokituko da.

6. I. eranskina: Esparru arautzailea

Bereziki, eta aplikatu beharreko beste araudi guztiak galarazi gabe, Jasangarritasun Arriskuak Erakundean integrazeko Politika honako xedapen hauek arautzen dute nagusiki:

- **2019/2088 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2019ko azaroaren 27koak, finantza zerbitzuen sektorean jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoak**

3. artikulua

Jasangarritasun arriskuen inguruko politiken gardentasuna

1. Finantza merkatuetako parte hartzaileek jasangarritasun arriskuak inbertsio erabakiak hartzeko prozesuan integrazeko politikari buruzko informazioa beren webguneetan argitaratuko dute.
2. Finantza aholkulariek jasangarritasun arriskuak inbertsioen edo aseguruaren inguruko aholkularitzan integrazeko politikari buruzko informazioa beren webguneetan argitaratuko dute.

4. artikulua

Erakunde mailako jasangarritasun arloko intzidentzia kaltegarrien gardentasuna

1. Finantza merkatuetako parte hartzaileek beren webguneetan argitaratu eta mantenduko dute:
 - a) jasangarritasun faktoreei buruzko inbertsio erabakien ondoriozko intzidentzia kaltegarri nagusiak kontuan hartzen dituztenean, behar besteko prestasunerako politikei buruzko adierazpena, intzidentzia kaltegarri horiei dagokienez, kontuan hartuta haien eragina, izaera eta jardueren eskala, baita eskaintzen diren finantza produktuen motak ere; edo
 - b) jasangarritasun faktoreei buruzko inbertsio erabakien ondoriozko intzidentzia kaltegarriak kontuan hartzen ez dituztenean, justifikazio argi eta garbia, intzidentzia horiek zergatik ez dituzten kontuan hartzen eta, hala badagokio, aintzat hartzeko asmorik duten (eta noiz) adierazten duena.
2. Finantza merkatuetako parte hartzaileek 1. apartatuaren a) letrari jarraikiz emandako informazioak honako hau hartuko du barnean, gutxienez:
 - a) jasangarritasun arloko intzidentzia kaltegarri nagusietako lehenetsiak identifikatzeko eta ezartzeko politikei eta dagozkion adierazle nagusiei buruzko informazioa;
 - b) jasangarritasun arloko intzidentzia kaltegarri nagusien eta horiek direla eta burututako jarduketak guztien (bidezkoa bada, programatutako jarduketak) deskribapena;
 - c) inplikazio politiken laburpenak, 2007/36/EE Zuzentarauaren 3. artikuluko g) letran xedatutakoa betez, hala badagokio;
 - d) enpresako jokabide kode arduratsuak eta –behar besteko prestasunari eta txostenak egiteari dagokionez– nazioarteko mailan onartutako arauak errespetatzeari, eta, hala badagokio, epe luzean Pariseko Akordioaren helburuekin bat etortze mailari buruzko aipamena.

3. 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2021eko ekainaren 30etik aurrera, finantza merkatuetako parte hartzaileek, balantzea ixteko egunean ekitaldian batez besteko langile kopurua gainditzen badute (500 langiletik gora), beren webguneetan argitaratu eta mantenduko dute –jasangarritasun faktoreen inguruko erabakien ondoriozko intzidentzia kaltegarri nagusiei dagokienez– behar besteko prestasunerako politikei buruzko adierazpena. 2. apartatuan aipatutako informazioa gutxienez jasoko du adierazpenak.

4. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, 2021eko ekainaren 30etik aurrera, finantza merkatuetako parte hartzaileek, talde handi bateko oinarri finkatuko sozietate nagusiak badira (2013/34/EB Zuzentarauaren 3. artikuluko 7. apartatuan adierazitakoaren arabera) eta, balantzea ixteko egunean ekitaldian batez besteko langile kopurua gainditzen badute (500 langiletik gora), beren webguneetan argitaratu eta mantenduko dute –jasangarritasun faktoreen inguruko erabakien ondoriozko intzidentzia kaltegarri nagusiei dagokienez– behar besteko prestasunerako politikei buruzko adierazpena. 2. apartatuan aipatutako informazioa gutxienez jasoko du adierazpenak.